



Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2023

ARAUDIA

I.- HITZARMEN IZENPETZAILEAK

Alde batetik

NEREA BRUÑO ARTAZKOZ, Nafarroako Bertsozale Elkarteko Lehendakaria, eta ANDER PEREZ ARGOTE, *Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2023*-ko antolakuntza arduraduna.

Beste aldetik

Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2023 egitasmoan parte hartzen duten bertsolariak, gai-jartzaileak, epaileak eta antolakuntza taldea.

Jakitera ematen dute

Hitzarmen honetan jasotzen diren arau eta eginbideak adostu eta sinatzen dituztela, dagokien ondorioak eta eraginak izan ditzaten.

II.- IRIZIPIDE OROKORRAK

1. *Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2023* Nafarroako Bertsozale Elkarateak antolatutako egitasmoa da.
2. Nafarroako Bertsozale Elkarateak, legezko arau guztiak betetzen dituenak, bere gain hartzen du *Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2023* modu duinean antolatzeko beharrezkoak diren bitartekoak bideratzeko ardura.
3. Eginkizun horretarako, Talde Antolatzaillea osatuko du elkarateak, modu irekian deialdia eginda, eta nahi duen orok parte hartuta. Talde Antolatzaillearenak izango dira txapelketarekin lotutako erabakiak. Halaber, araudi honetan jaso gabeko egoeraren bat emango balitz, Talde Antolatzaillearena izanen da horri erantzuteko azken erabakia.
4. Gai-jartzaile taldearen zeregina izanen da bertsolariak bere sorkuntza lana ahalik eta egokien garatu dadin gaiak sortu, gaien arteko oreka zaindu eta gaiak isilpean gordetzea.
5. Epaimahaiaren zeregina izanen da irizpide berdinekin epaitzea bertsolarien sorkuntza lana.
6. Bertsolariek, gai-jartzaileek eta epaileek Nafarroako Bertsozale Elkaratearen esku uzten dituzte:
 - 6.1. Txapelketa honetan sortutako emaitza osoaren kudeaketa- eskubidea.
 - 6.2. Autore, interpretazio eta irudi eskubideak, erabilera hau eduki ahal izateko:
 - 6.2.1. Telebistaz, irratiz nahiz Internetez, zuzenean edo diferituan, Txapelketako saioak eman ahal izateko.
 - 6.2.2. Bideo, audio, paper nahiz euskarri elektronikoetan ekoizturik lagapenak edo ustiaketak egin ahal izateko.
 - 6.2.3. Bertsozale Elkaratearen Xenpelar Dokumentazio Zentroan artxibatzeke.
7. Txapelketa honetako antolakuntzatik edo/eta ondorengo ekoizpenetatik eskuratu daitezkeen onura ekonomikoak Nafarroako Bertsozale Elkaratearen egitasmoari laguntzeko bakarrik erabili ahal izango dira.
8. Talde Antolatzailleak parte hartzaile guztien arteko komunikazioa eta errespetua bultzatuko ditu, eta ekarpenak bideratzeko beharrezkoak diren kanalak irekiko ditu. Parte hartzaile guztiek dute desadostasunak agertu eta zabaltzeko aukera, beti ere errespetuz egiten bada, eta albo batera utzi gabe Txapelketarekiko erantzukizuna eta leialtasuna.

III.- BERTSOLARIAK. IZEN-EMATEA, SAILKAPENA ETA BESTE

1. Izen-ematea

- 1.1. Parte hartzaileak 18 urte beteta eduki beharko ditu, edo 2023an bete. Kopuruak orekatzeko beharrezkoa balitz, salbuespena egin dezake talde antolatzaileak, 2.2.1 puntuan adierazten den gisan.
- 1.2. Nafarroan jaiotako bertsolariek eman dezakete izena, edota, txapelketa jokatzeko garaian bizilekua Nafarroan dutenak.
- 1.3. Parte hartzaileek Bertsozale Elkarteko bazkide izan beharko dute.
- 1.4. Parte hartzaileek ezarritako epearen barruan eta antolakuntzak adierazitako bideetatik eman beharko dute izena.

2. Sailkatze sistema

- 2.1. Azken txapelketan, 2021koan, parte hartu gabeko bertsolari guztiek jokatu beharko dute aurre-sailkatzea fasea: berdin sekula parte hartu ez dutenak zein 2021a baino lehen noizbait parte hartutakoak.
- 2.2. Aurre-sailkatze faseko saioek txapelketakoen moldea jarraitu beharko dute, eta zentzu horretan, sei bertsolariek osatuta egongo dira. Horretarako izena eman duten bertsolariekin nahikoa ez balitz, ondorengo urratsak emango dira:
 - 2.2.1. Lehenik eta behin, Talde Antolatzaileak izenik eman gabeko inguruko bertsolariekin kontaktatuko du, edo adinagatik kanpoan gelditu direnekin, saioak osatzeko. Une horretatik aurrera, sailkatuz gero, bertsolari horiek aukera izango dute txapelketan parte hartzeko, bere epean izenik eman ez bazuten ere, edo izen emateko adin baldintzak betetzen ez bazituzten ere.
 - 2.2.2. Aurreko puntuan jasotakoa ezinezkoa balitz, azken txapelketako sailkapenaren arabera aterako lirateke bertsolariek aurre-sailkatze fasera. Adibidez: aurre-sailkatze fasea jokatzeko 10 bertsolari baldin badaude, azken txapelketako azken bi sailkatuak aterako dira fase honetara, seiko saioak egin ahal izateko.
 - 2.2.3. Aurreko puntuan jasotakoa egiteko, aurreko txapelketako fase bakoitzeko emaitzaren arabera ordenatuko dira aurreko txapelketako bertsolariek. Hau da, kanporaketetan gelditu zirenak kanporaketetako emaitzen arabera, finalaurrekoetan gelditu zirenak finalaurrekoetako emaitzen arabera, eta finalistak, finaleko emaitzaren arabera.

- 2.3. Talde antolatzaileak erabakiko du aurre-sailkatze fasetik zenbat bertsolari sailkatzen diren txapelketara, beti ere azken honen egiturak baldintzatuta (hau da, seiko saioak antolatu ahal izateko moduan).
- 2.4. Izen emate epea itxi eta asko jota astebeteko epean jakinaraziko du talde antolatzaileak nortzuk jokatu beharko duten aurre-sailkatze fasea.
- 2.5. *Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2023*-tik ateratzen den azken sailkapena hurrengo txapelketako sailkatze sistema ebazteko erabili ahal izango du Talde Antolatzaileak.

3. Saioen osaketa

- 3.1. Aurre-sailkatze saioak osatzeko, zozketa egingo da fase horretan parte hartu beharreko bertsolari guztien artean.
- 3.2. Txapelketako kanporaketa saioak osatzeko, sugearen sistema erabiliko da, horretarako azken txapelketako sailkapena hartuta oinarri gisara, eta aurre-sailkatze saioetako sailkapena erantsita. Behin aurre-sailkatze fasea bukatuta jakinaraziko da txapelketako kanporaketa bakoitzeko osaketa.
- 3.3. Saio bakoitzeko osaketa zehaztuta dagoenean, zozketa egingen da saio bakoitzari zein herri/data dagokion ebazteko.
- 3.4. Saio bakoitzeko bertsolarien ordena zozketak erabakiko du. Bertsolariek, beranduenez, saioa hasi baino 45 minutu lehenago egon beharko dute aretoan, ordu horretan egingen baita zozketa (ordu horretarako ez badaude, berdin-berdin egingen da zozketa). Saioa hasi baino 15 minutu lehenago bertsolariren bat ez bada iritsi, eta abisurik eman ez badu, ordezkioak hartuko du bere lekua. Hortik aurrera, ordezkioarena izango da txapelketarako eskubide osoa. Ordezkoak faseko saio guztietan egon beharko du; horri uko egin ezker, hurrengo sailkatuak hartuko du ordezeko rola.
- 3.5. Bertsolariek ondoko konpromisoak hartuko dituzte:
 - a. Txapelketako parte-hartzaile bakoitzak beste partaideenganako eta antolakuntzarenganako errespetuzko jokaera izateko konpromisoa hartuko du.
 - o Antolakuntzak emandako argibideak jarraitu.
 - o Ordu-tegiak zaindu.
 - b. Entzuleenganako eta oholtzan dauden gainerako kideenganako errespetua dela eta, oholtza gaineko jarrerak zaintzeko konpromisoa hartuko du parte-hartzaileak (oholtza gaineko mugimenduak zaindu).

4. Trukaketak eta ordezkapenak

- 4.1. Behin aurre-sailkatze fasea bukatuta (ekaina hasieran) jakinaraziko zaio parte hartzaile bakoitzari zer saiotan kantatuko duen. Egokitutako datan ezingo balu, parte hartzaileak saioz aldatzeko eskaera aurkeztu beharko du 2023ko abuztuaren 28tik irailaren 3ra bitarteko epean, nafarroa@bertsozale.eus helbidera idatzita, eta arrazoi justifikatuak azalduta.
- 4.2. Eskaera onartzekotan, beste saio bateko bertsolari batekin trukatu luke Talde Antolatzaileak, ahal den neurrian "maila" mantentzen saiatuta. Hau da, sugearen sistemaren arabera saio hirugarrena baldin bada aldatzeko eskaera egin duena, lehenik eta behin beste saio bateko hirugarrenari proposatuko zaio aldaketa. Zozketaz erabakiko da aldaketa zeini proposatu.
- 4.3. Trukaketa egitea ezinezkoa balitz, ordezkoei emango die aukera Talde Antolatzaileak. Ordezkoen zerrenda txapelketara sailkatu gabekoek osatuko dute, aurre-sailkatze faseko emaitzaren arabera. Behin ordezkapena eginda, ordezkorena izanen da txapelketarako parte hartze eskubide osoa (alegia, hurrengo faserako sailkatuz gero, berak izango luke txapelketan segitzeko eskubidea, ordezkatuaren gainetik).
- 4.4. Azken uneko bajak baleude, aurrez azaldutako sistema bere aplikatuko litzateke, beti ere Talde Antolatzaileak ondorioztatuko balu arrazoi justifikatua dela eta ezin zela lehenagotik aurreikusi, eta beti ere saioaren ordua baino beranduenez 48 ordu lehenago jakinarazi bada. 48 ordu baino gutxiago falta badira, ordezkoak hartuko du saioan parte hartu ezin duenaren tokia, eta aurrerantzean berarenak izango dira txapelketarekiko eskubide guztiak, ordezkatua izan denaren kaltetan.

5. Gonbidapenak

- 5.1. Bertsolariek, gai-jartzaileek, epaileek eta antolakuntza taldeko kideek gonbidapen bana dute txapelketako saio guztietarako, berdin haien parte hartu ala ez (finalaren kasuan, parte hartuz gero, bina).
- 5.2. Kide horiek saioan zuzenean parte hartzen dutenean, gonbidapen hori beste pertsona batentzat dela ulertuko da; saioan zuzenean parte hartzen ez dutenean, gonbidapen hori haientzat dela ulertuko da.
- 5.3. Parte hartzaile guztiek antolakuntzak zehaztutako epean egin beharko dute bere gonbidapenaren erreserba. Hortik kanpo, ez da sarrerarik bermatuko.

IV.- TXAPELKETAREN EZAUGARRIAK

1. Egutegia

- 1.1. Izen-ematea: apirilaren 1tik 16ra (biak barne)
- 1.2. Aurre-sailkatze fasea: Maiatzak 26, ekainak 2
- 1.3. Kanporaketak: urriak 7, 14, 15 eta 21*
- 1.4. Finalaurrekoak: azaroak 4, 11 eta 19
- 1.5. Finala: abenduak 2

**Izen-emate kopuruak baldintzatuko du egitura, eta horren arabera izanen dira lau edo bost kanporaketa.*

2. Egin beharreko lanak

- 2.1. Aurre-sailkatze fasea *(6 bertsolariko saioak) 10 bertso puntuagarri*
 - Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian
 - Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian
 - Kartzelako lana:
 - o Banaka, gaia eta lehen puntua emanda, bi bertso zortziko txikian
 - o Banaka, gaia emanda, bi bertso nahi den doinu eta neurrian
- 2.2. Kanporaketak *(6 bertsolariko saioak) 13 bertso puntuagarri*
 - Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian
 - Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian
 - Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian
 - Kartzelako lana:
 - o Banaka, gaia eta lehen puntua emanda, bi bertso zortziko txikian
 - o Banaka, gaia emanda, bi bertso nahi den doinu eta neurrian
- 2.3. Finalaurrekoak *(6 bertsolariko saioak) 15 bertso puntuagarri*
 - Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian
 - Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian
 - Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian
 - Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte.
 - Kartzelako lana:
 - o Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian

- 2.4. Finala (8 bertsolariko saioa) 15 bertso puntuagarri.
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian
 - Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian
 - Banaka, gaia eta lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian
 - Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian
 - Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian

Buruz burukoa 9 bertso puntuagarri.

- Binaka, gai emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean
- Kartzelako lana:
 - o Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian

3. Puntuazioak

- 3.1. Nafarroako Bertsozale Elkarteko Epaille Taldeak adostu eta onartutako epai irizpideetan oinarrituko da Txapelketako bertsoen puntuazioa.
- 3.2. Otik 10 puntura artekoa izanen da epaille bakoitzak bertso bakoitzari ematen ahalko dion puntuazioa. Epaimahai osoaren puntu gehiketa izanen da puntu kopuru erabakitzailea. Puntukako ariketaren kasuan, bi bertsolarien artean zortzi bertso osatuko badituzte ere, hiruna izango dira bertsolari bakoitzari epaituko zaizkion bertsoak.
- 3.3. Fase bakoitza, osorik, epaille talde berak epaitzea bermatuko da. Saio guztietan epaimahaia parekide izan dadin ere saiatuko da talde antolatzailea.
- 3.4. Saio bakoitzaren amaieran, epaimahaiak bere osotasunean bertsolari bakoitzari eman dion puntuazioa jakinaraziko da, aurkezlearen bitartez. Gero, hedabideen esku jarriko da xehetasun gehiagorekin, ariketaz ariketa, baina beti ere, epaimahai osoaren puntuazioa emanda.
- 3.5. Bertsolariak fase oso bat amaitutakoan bakarrik izanen dute epaimahaikide bakoitzak emandako puntuazioa ikusteko eskubidea, beti ere epaimahaikideen izen-abizenik ikusi gabe. Horretarako, antolakuntzarekin harremanetan jarri beharko dute, batzeko ordua eta eguna zehazteko.
- 3.6. Berdinketa kasuan, bertsolari biren edo gehiagoren artean izan daitezkeen puntu berdinketak apurtzeko, saioan bertan zein fasearen amaieran, irizpide hauek jarraituko dira.

- 3.6.1. Lehen urratsa: Epaille gehienek aurretik daukaten bertsolaria pasako da aurrera.
- 3.6.2. Bigarren urratsa, postu batura: saioa amaituta, edota faseko azken saioa amaituta, epaimahaikideen saioko edo fase osoko banan banako sailkapenak egingen dira, eta epaille bakoitzaren sailkapenaren arabera puntu kopurua emanen zaio bertsolari bakoitzari (adibidez, zazpigarrenari 7 puntu); ondoren, epaimahaikide guztien puntuen batuketa egin, eta koefiziente txikiena daukanaren alde erabakiko da.
- 3.6.3. Hirugarren urratsa: Bakarkako lanean puntu gehien jaso duenaren alde erabakiko da. Hemen ere berdinketa balego, puntu erantzuneko ariketa hartuko litzateke kontuan, eta horrela, atzetik aurrera.

V.- SARIAK

1. Bertsolariak

- 1.1. Kanporaketetan: 100€
- 1.2. Finalurrekoetan: 150€
- 1.3. Finalean: 300€

2. Gai-jartzaileak*

- 2.1. Aurre-kanporaketetan: 55€
- 2.2. Kanporaketetan: 55€
- 2.3. Finalurrekoetan: 65€
- 2.4. Finalean: 80€
- 2.5. Prestaketa bilerak: dietak**

3. Epaileak*

- 3.1. Aurre-kanporaketetan: 55€
- 3.2. Kanporaketetan: 55€
- 3.3. Finalurrekoetan: 65€
- 3.4. Finalean: 80€
- 3.5. Prestaketa bilerak: dietak**

4. Transkribatzaileak*

- 4.1. Kanporaketetan: 50€
- 4.2. Finalurrekoetan: 50€
- 4.3. Finalean: 50€

*Kopuru hauek kopuru gordinak dira; horiei dagokien PFEZ atxikipena aplikatuko zaie.

*Gai-jartzaile eta epaileen kasuan, saioan bertan egiten den lanaz gain, prestaketetarako egiten diren batzarrak ere ordainduko dira, bi kontzeptutan: prestaketa bilera bera (diru kopuru finko bat, taldean banatzeko), eta bidai gastuak (desplazatu behar izan duenak aurkeztutako frogagiriaren araberakoa).